



# OLABIDE **KIROL** ELKARTEA

## KIROL EKINTZAK

**Koordinatzaile orokorra: Joseba Bujanda 945 011968** ✉  
(astelehenetik ostegunera: 10:00etatik 13:30etara / 16:30etatik 19:00etara  
Ostiraletan: 10:00etatik 13:00etara / 15:00etatik 17:00etara)

**Futboleko koordinatzailea: Xabi Ruiz de Ocenda 945 011968** ✉  
(astelehenetik ostegunera: 16:30etatik 17:30etara)

**Saskibaloiko koordinatzailea: Ion Haritz Ruiz de Gordo: 945 011968** ✉  
(astelehenetik ostegunera: 16:30etatik 17:30etara)

**Beste kiroletako koordinatzailea: Julen Encinas: 945 011968** ✉  
(astelehenetik ostegunera: 16:30etatik 17:30etara)

**FAX. 945 130 250**

**E-MAIL: [kirolelkartea@olabide.com](mailto:kirolelkartea@olabide.com)**

## **KIROLAREN ONURAK**

Jende askok kirola, dibertigarria izateagatik, ona dela esango du. Honako hau egia da, baina umeek, honetaz gain, beste etekin espezifiko batzuk lor ditzakete edozein kirol praktikatuz. Hiru onura mota ezberdin daude:

### *Onura sozialak:*

- Lagunak egitea.
- Talde baten barnean lan egiten ikasi.
- Kooperatzen, elkar banatzen eta kideak laguntzen eta animatzen ikasi.
- Arrakastak eta porrotak aztertzen ikasi.
- Helburuak finkatzen, erronkei aurre egiten eta oztopoak gainditzen ikasi.
- Bakoitzaren gaitasunak eta mugak ezagutu.
- Tenperamentua eta emozioak kontrolatzen ikasi.

### *Onura fisikoak:*

- Osasuna eta egoera fisikoa hobetu.
- Trebetasunak garatu eta hobetu.
- Koordinazioa hobetu.
- Kirola praktikatzeko trebetasun berriak ikasi.

### *Onura psikologikoak eta moralak:*

- Berekiko konfiantza garatu.
- Arauak betetzearen garrantzia ikasi.
- Garbi jokatzeko eta erabaki moral edo etikoak egiten ikasi.
- Besteak eta bere iritziak errespetatzen ikasi.
- Dilemak edo gatazkak konpontzen ikasi.

## KIROL OHAR OROKORRAK

1. Txapelketa duten bi ekintza edo gehiago praktikatzuz gero:
  - ? Kirol hauen txapelketen ohiko ordutegia berbera bada (adibidez: biena larunbat goizetan): **Horietako bat aukeratuko da lehen kirol bezala** eta honen txapelketetara joatea derrigorrezkoa izango da (baldin eta entrenamendu zein partidetara joateko aukera hautatu bada). Bigarren kirolarekiko konpromiso osoa ezin denez hartu bigarren ekintza honen txapelketara ezin izango da joan. Taldearen baldintzek onartzen badute ikasturtean zehar bigarren kirol honetako txapelketara hiru alditan joateko aukera emango zaio (hiruhilabetero aldi bat) kirol horren lehiaketa ere froga dezan (entrenatzaileak erabakiko du noiz).
  - ? Kirol hauen txapelketen ohiko ordutegia ezberdina bada (adibidez. batena larunbat goizetan eta bestearena igandeetan): Inongo kointzidentziarik ez dagoenez, bi kiroleko txapelketetan parte hartzeko aukera emango zaio.
  - ? Banatutako izen-emate orrian zuen aukeraketa jarri behar izango duzue.
2. Kirol guztietan **entrenamenduetara joatea derrigorrezkoa da**. Ikasturte osoan zehar asteko entrenamendu batera ezin dena joan beste ekintza bat dela eta (ingelesa, klase partikularrak...) kirol horretako txapelketetan parte hartu ezin izango du.
3. Txapelketa duten **talde-kiroletan** (futbola, areto futbola, saskibaloia, boleibola eta esku-pilota) hurrengo bi aukeren artean hautatu ahal izango da. Banatu zaizuen izen-emate orrian zuen aukeraketa jarri behar izango duzue :
  - a) Entrenamenduetara bakarrik joatea: Ezin izango zen partida edo txapelketetara joan. Aukera hau bakarrik taldearen dinamika oztopatzen ez den bitartean hautatu ahal izango da.
  - b) Entrenamendu eta partidetara joatea: **Partida edo txapelketa guztietara joatea derrigorrezkoa izango da**. Norbait **bi** partida baino gehiagotara faltatu behar izango bada beste ekintza (ingelesa, abesbatza, tenis, dantza, pala, etab...) edota beste arrazoi batzuk direla eta (herrira joan, eskiatzera joan, neurri familiarrak, etab...), ezin izango du aukera hau hartu. Bakarrik "a" aukera hartu ahal izango du (entrenamenduetara bakarrik joan). **Norbait hiru partidetara faltatzen bada, hortik aurrera bakarrik entrenamenduetara joateko aukera izango du.**

Arau honekin ardura eta taldearekiko konpromisoaren baloreak landu nahi ditugu. Talde baten funtzionamendua talde horretan dauden jokalarien guztion jarrera, aktitude eta konpromisoaren arabera izango da eta hori dela eta guztien (jokalarien eta gurasoen) inplikazioa nahitaezkoa da.

Txapelketak dituzten **banakako kiroletan** (judo, atletismoa, mahai tenisa, soinketa erritmikoa): Hauetara joatea borondatezkoa izango da (kirol hauek ez dute astebururo txapelketarik). Hauetara apuntatzeko astean bertan banatuko den izen-emate orri baten bitartez egingo da.

4. Txapelketetan parte hartuko duten kirolari guztientzat jokatzeko ekipaia eta txandala erostea eta lehiaketetan erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Honako hau derrigorrezkoa izango den kirolak: futbola, saskibaloia, areto-futbola, boleibola, atletismoa eta judoko eta pilotako txapelketetan parte hartuko duten kirolarientzat (azken hauentzat, jokatzeko ekipaia eta txandalaren goiko alde derrigorrezkoa izango da, txandalaren prakak ez ordea). Ekipaien erosketa Kirolak Zubiaurre dendan (Florida kalea, 2) egin beharko da.
5. Talderen batean onartzen diren baino jokalarari gehiago apuntatuta badaude taldea egiteko hurrengo irizpideak jarraituko dira:
  1. Jokalariak aurreko ikasturtean izandako jarrera eta taldearekiko konpromisoa.
  2. Aurreko ikasturtean taldean apuntatuta egondako jokalariak.
6. Olabide K.E. utzi eta beste klub batera joan nahi dutenek ikasturte bukaeran egiteko aukera izango dute. Denborakdia hasi eta gero ez zaie baimenik emango.
7. Olabide K.E. uzten duenak (beste klub batera joateko), birsartzeko aukera bakarrik lekua egongo balego izango du.
8. Ikasturtea hasi eta gero, ezinbesteko arrazoiengatik ez bada, ezin izango da kirol ekintzaz aldatu.
9. Olabide Kirol Elkarteko eskolar deituriko ekintzak Ikastolako seguruaren barne daude. Ekintza federatuak, federazio bakoitzak duen seguruaren barne. Istripuren bat egotekotan kirol koordinatzailearekin harremanetan jarri.
10. 20.45etako autobusa (Batxilergoko entrenamenduak) bakarrik 20 pertsona baino gehiagok erabili behar badute jarriko da.
11. Baldintzak direla eta talde bateko bi pertsonak kamiseta zenbaki berbera badute, erabakitzeke zenbakia nork mantentzen duen ondorengo irizpideak jarraituko dira:
  - a) Bi talde elkartzen badira:
    1. Ekintzan urte gehien daraman jokalariak mantenduko du.
    2. Zozketa
  - b) Jokalari bat eginda dagoen talde batera badoa:
    1. Hasierako talde horretako partaidea zen jokalariak mantenduko du.
12. Kadete mailatik aurrera (barne), kategoria bakoitzean talde bat baino gehiago egotekotan, taldeak jokalarien kirol mailaren, ekintzarekiko interesaren eta aurreko ikasturtean izandako portaeraren arabera egingo dira.
13. Salbuespen moduan eta ekintzak behar duenean, beste ikastetxe batzuetako partehartzaileak onartu ahal izango dira. Behin onartuta hauek Olabide Kirol Elkarteko ekintzetan Ikastolako beste ikasleek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte.

# **BERRITASUNAK**

## **PSIKOMOTRIZITATEA:**

- ? Lehen urtez eskaintzen den ekintza. Haur Hezkuntzako 6 mailakoentzat zuzendutakoa bakarrik.
- ? Ekintza Psikomotrizitateak, haurren “akto” boluntarioan eragina izango du eta hau estimulatu edo eraldatu lagunduko du. Honetarako, gorputz aktibitateaz eta adierazpen sinbolikoaz baliatuko gara. Beraz, Psikomotrizitatearen helburua haurrak, ingurugiroarekiko duen interakzioa hobetzea izango da. Teknika honek, beste batzuen artean, hurrengo puntuak landuko ditu: Kontrol “toniko-posturala”, lateralitatea, oreka, koordinazio dinamikoa, espazio orientazioa, gorputz irudi eskema...
- ? Egun bateko ekintza da. Astean behin bakarrik egingo da. Bat aukeratu behar izango da.
- ? Egun guztietan, partehartzaile nahiko ez egoteagatik, ekintza ateratzen ez bada, ume guztiak egun zehatz batzuetan elkartzen saiatuko ginateke.

## **NATUR JARDUERAK:**

- ? DBHko ikasleentzat zuzendutakoa.
- ? Ekintzak: orienting, mendi-bizikleta, piragüismo, mendi irteera, eskalada, ski, mountain bike...
- ? Ekintza hau hilabetean behin burutuko da (igandeetan).
- ? Kurtsoan zehar, hileroko irteerei buruzko informazioa jaso nahi duenak alta eman beharko du ekintza honetan.
- ? Alta ematea (informazioa jasotzeko) dohainik da.

## **XAKE:**

- ? Jantoki orduan.
- ? DBH.

## **JUDO:**

- ? DBH-n lehen aldiz.

## **ATLETISMOA:**

- ? Lehen Hezkuntzan (3.mailatik 6.mailara).

# **KIROL OHAR ESPEZIFIKOAK**

## **KIROL – HASIERA**

- ? Ekintza honetan hainbat kirolen lehendabiziko urratsak ematen dira. Ekintza honetan neska-mutilok aktibitate eta kirol asko praktika ditzatela bilatzen da, kirol hauetara joka eta gero, etorkizun batean, gehien gustatzen zaiena edota bere gaitasunetara hobeto moldatzen dena hautatzeko aukera emanaz. Honela, espezializazio goiz bat ekiditen da, non umeek bere bizitza eskolar osoan kirol bakarra aukeratzen eta praktikatzen duten, gehiago gustatu ahal zaion edo bere gaitasunetara gehiago moldatzen den kirola egon daitekeen jakin gabe.
- ? Lehen Hezkuntzako 1. mailan, saioak jolas ezberdinez osatuta egongo dira. Kirol jokoak edo joko tradizionalak. Helburua jolas eta kirol ekintzak praktikatzea eta probatzea da.
- ? Lehen Hezkuntzako 2. mailan, hurrengo urteetan ikastolan praktika ahal diren kirolak landu egingo dira. Horrela, jarraian izango diren hiru saiotan zehar kirol bakarra egingo da. Aurrera eramango diren kirolak honako hauek dira: soinketa, pilota, atletismoa, judoa, eskubaloia, saskibaloia, futbola, patinaia-hokeia. Hauek ariketa analitiko edota entrenamendu serio batzuen bitartez praktikatu beharrean kirolen inguruko jolasen bitartez bideratuko dira, era erakargarriago batean.
- ? Hilabetean behin (larunbat goizetan), beste ikastetxe batzuekin topaketa batzuk egingo dira. Topaketa hauetan aktibitate ezberdinak egingo dira. izotz-pista, igerilekua, orientazioa, etab. Topaketa hauetara joatea ez da derrigorrezkoa izango eta ez dute lehiaketa izaerarik.

## **UR ETA LUR JOLASAK**

- ? Uretan zein kalean egiten diren jolas tradizionalak eta ume jolasak nahastuko dituen ekintza. Saioaren erdia Ikastolako igerilekuan egingo da eta beste erdia kalean edo leku estali batean. Ekintzak izaera guztiz ludikoa du.

## **IGERIKETA**

- ? Egingo den igeriketa erabilgarri izaera edukiko du, hau da, ikasteko eta hobetzeko balio izango du soilik. Egiten den bi egunen artean bat hautatu behar izango da. Asteazkena edo osteguna (LH1 eta LH2) eta astelehena edo asteartea (LH3-LH6). Bi salbuespen daude astero saio gehiago egin ahal izateko: Ohar medikua eta Heziketa Fisikoko irakaslearen aholkua, errefortzu moduan.

## **JUDO**

- ? Foru Aldundiak antolatzen duen txapelketa eskolarrean parte hartzeko aukera emango zaie (urtean 4 edo 5 lehiaketa antolatzen dira). Txapelketa bakoitzean parte hartzeko aukera librea izango da.

## **PATINAIA**

- ? Ekintza guztiz ludikoa da. Honetan patinatzen jolasen bitartez ikasten dute.
- ? Ez da abiadurazko patinaia egiten.

## **XAKEA**

- ? Foru Aldundiak antolatzen duen txapelketa eskolarrean parte hartzeko aukera emango zaie (urtean 4-8 lehiaketa. Igande goizetan). Txapelketa honetan parte hartzeko aukera librea izango da.

## **MAHAI TENISA**

- ? Foru Aldundiak antolatzen duen txapelketa eskolarrean parte hartzeko aukera emango zaie (urtean 8 lehiaketa. Igande goizetan). Txapelketa bakoitzean parte hartzeko aukera librea izango da.

## **PILOTA NAHASIAN**

- ? Pilotaren modalitate guztiak praktikatuko dira: Pala, esku-pilota, frontenisa, trinketea, zesta punta, etab...
- ? Ekintza Mendizorrotzako frontoietan izango da. Autobusa egongo da.

## **BASABIDEA**

- ? Ekintza hau hilabetean behin burutzen da (igandeetan).
- ? Kurtsoan zehar, hileroko irteerei buruzko informazioa jaso nahi duenak alta eman beharko du ekintza honetan.
- ? Ekintzak kuota txiki bat dauka eta honekin ekintzak dituen gastu txikiak ordaindu ahal izango dira.
- ? Irteerek arduradun bat izaten dute. Arduradun hau guraso bat izaten da. Ez dago begiralerik ekintza honetarako.

## **ESKU PILOTA**

- ? Ekintza honetan esku pilotara bakarrik jokatuko da. Euskal pilotako beste modalitateak "pilota nahasian" ekintzan praktikatu ahal izango dira.
- ? Txapelketetan parte hartzeko aukera librea da.
- ? Mendizorrotzan entrenatuko dutenek (DBH) autobusa izango dute, joateko zein bueltatzeko.

## **ATLETISMOA**

- ? Foru Aldundiak antolatzen duen eskolar txapelketan parte hartzeko aukera emango zaie (larunbat arratsaldeetan edo igande goizetan). Txapelketa bakoitzean parte hartzeko aukera libreza izango da.

## **SASKIBALOIA**

- ? DBH edota Batxilergoko ikasleen entrenamenduak, dauden talde kopuruaren eta ditugun instalakuntzen arabera, aldaketak izan ditzakete.
- ? Azkenean, ostiraletan, talderen batek Ikastolatik kanpo entrenatu beharko balu, ez luke autobus zerbitzurik izango.
- ? DBHko taldeek teknifikazio entrenamenduak izango dituzte, mutilek astelehenetan eta neskek astearteetan. Hauetan talde ezberdinetako jokalariek kirol mailaren arabera multzo berriak osatuko dituzte, beraien mailara egokitzen diren ariketak eginez eta ondorioz, kirol ikaskuntza hobetuz.

## **FUTBOLA**

- ? DBH 1 mailatik aurrera, eta kirol mailaren arabera, astean behin (ostiraletako entrenamenduetan) zenbait jokalaria goiko kategoriako taldera "igo" daitezke, hauen kirol ikaskuntza hobetzeko asmoz.

## KUOTAK

1. Kuotak ikasturte osorako kalkulatu dira eta 8 hilabetetan kobratuko dira Ikastolako ordainagiriaren bitartez (urritik maiatzera arte).
2. Inskripzio matrikula bat egongo da (ekintza bakoitzeko). 15 eurotako izango den matrikula hau 2008ko uztailean kobratuko da.
3. Ekintza bakoitzeko behin betiko kuotak abenduko Asanbladan Ikastolako aurrekontuak onartu arte ezin izango ditugu zehaztu. Ikasturtea hasi baino lehen behin betiko kuota proposamena helaraziko dizuegu.
4. Erreferentzi moduan, 2007-2008 ikasturtean izandakoak jakinarazten dizkizuegu.
  - Saskibaloia: 21,71 euro
  - Fútbola: 21,45 euro
  - Esku-pilota: 16,83 euro
  - Beste ekintzak: 15,83 euro
5. Urtarriletik aurrera, Asanbladan onartutako urteroko kuotari, abendura arte ordaindutakoa kendu eta 5 hilabetetan proportzionalki zatituko da (urtarriletik maiatzera arte).
6. Salbuespen bakarra, basabideko ekintza izango da, 15 eurotako bi kuota pasatuko direla urrian eta martxoan.
7. Ekintza batean aritzen diren partaide guztientzat kuota kopurua berbera da (entrenamendu egun kopurua ezberdina izanda ere edo txapelketetara ez joanda ere).
8. Epez kanpo apuntatzen denak (abendura arte) 30 eurotako matrikula ordaindu behar izango du (gainera ekintzan lekua bakarrik egonez gero onartuko da). Hartutako neurri honekin izen-emateak epearen barne egitea eta honela, eskolaz kanpoko ekintzetako kudeaketa (entrenatzaileak, taldeak, autobusak, instalakuntzak...) ahalik eta egokien eta eraginkorren egin ahal izatea besterik ez da bilatzen. Urtarriletik aurrera (barne) apuntatzen denak 15 eurotako matrikula besterik ez du ordaindu behar izango.
9. Kirol Elkarteari baja bat komunikatu ezean, hileroko kuota pasatzen jarraituko da.
10. Bi kuota ordaintzen ez duenak ezin izango du ekintzan jarraitu.
11. Ekintza batean izena eman duen ikasleak eskolaz kanpoko epe osorako egiten du (irailaren bukaeratik maiatzaren bukaera arte). Ikasturtean zehar ezin da bajarik eman, Ikastolara zio larriagatik bi hilabete baino gehiago etortzen ez diren kausetan izan ezik. Salbuespen bezala eta zenbait egoeren aurrean, Ikastolako Zuzendaritzak, baja bat dela eta kobratzeko zain dauden kuoten baliogabetzea onar dezake. Hala eta guztiz ere, baja ematen bada tarifa hobetsiak galduko lituzke eta noizbehinkako tarifekin egingo genuke egondako egunen likidazioa (bere baja dela eta ekintzak izan dezakeen defizitaren gain hartzea).

# **KIROL EKINTZAK**

## **HH6 / EI 6**

<b>DEPORTE</b>	<b>DÍAS</b>	<b>HORARIO</b>	<b>LUGAR</b>
PSIKOMOTRIZITATEA	1/2/3/4	16:40/17:40	PSIKOMOTRIZITATE GELA
BASABIDEA	7		

## **LH 1 / EP 1**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
KIROL HASIERA	1,3 / 2,4	16:40/17:40	ARETOA
IGERIKETA	3,4	16:40/17:40	IGERILEKUA
XAKE	1	16:40/17:40	LIBURUTEGIA
UR ETA LUR JOLASAK	5	15:00/16:30	ARETOA / IGERILEKUA
BASABIDEA	7		

## **LH 2 / EP 2**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
KIROL HASIERA	1,3 / 2,4	16:40/17:40	KIROLDEGIA
IGERIKETA	3,4	16:40/17:40	IGERILEKUA
XAKE	2	16:40/17:40	LIBURUTEGIA
UR ETA LUR JOLASAK	5	15:00/16:30	ARETOA / IGERILEKUA
BASABIDEA	7		

## **LH 3 / EP 3**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
IGERIKETA	1,2	16:40/17:40	IGERILEKUA
PATINAIA	2,4	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
GIMNASIA ERRITMIKOA	2,4	16:40/17:40	GIMNASIOA
ESKU PILOTA	1,3	16:40/17:40	IKAST: FRONTOIA
UR ETA LUR JOLASAK	5	15:00/16:30	ARETOA / IGERILEKUA
ATLETISMOA	2,4	16:40/17:40	FRONTOIA
JUDO	1,3 / 2,4	16:40/17:40	TATAMIA
FUTBOL-5	1,3	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
SASKIBALOIA NESKAK	2,4	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
SASKIBALOIA MUTILAK	1,3	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
XAKE	3 / 4	16:40/17:40	LIBURUTEGIA
AEROBIKA	5	15:00/16:30	GIMNASIOA
MAHAI TENISA	5	15:00/16:30	GIMNASIOA
BASABIDEA	7		

**LH 4 / EP 4**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
IGERIKETA	1,2	16:40/17:40	IGERILEKUA
PATINAIA	2,4	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
GIMNASIA ERRITMIKOA	2,4	16:40/17:40	GIMNASIOA
ESKU PILOTA	1,3	16:40/17:40	IKAST: FRONTOIA
UR ETA LUR JOLASAK	5	15:00/16:30	ARETOA / IGERILEKUA
ATLETISMOA	2,4	16:40/17:40	FRONTOIA
JUDO	1,3 / 2,4	16:40/17:40	TATAMIA
FUTBOL-5	2,4	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
SASKIBALOIA NESKAK	2,4	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
SASKIBALOIA MUTILAK	1,3	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
XAKE	3 / 4	16:40/17:40	LIBURUTEGIA
AEROBIKA	5	15:00/16:30	GIMNASIOA
MAHAI TENISA	5	15:00/16:30	GIMNASIOA
BASABIDEA	7		

**LH 5 / EP 5**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
IGERIKETA	1,2	16:40/17:40	IGERILEKUA
PATINAIA	2,4	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
GIMNASIA ERRITMIKOA	2,4	16:40/17:40	GIMNASIOA
AEROBIKA	1,3	16:40/17:40	GIMNASIOA
ESKU PILOTA	1,3	16:40/17:40	IKAST. FRONTOIA
UR ETA LUR JOLASAK	5	15:00/16:30	ARETOA / IGERILEKUA
PILOTA NAHASIAN	5	15:00/16:30	MENDIZORROTZA
ATLETISMOA	2,4	16:40/17:40	FRONTOIA
JUDO	1,3 / 2,4	16:40/17:40	TATAMIA
FUTBOL- 7	1,3	16:40/17:40	FUTBOL ZELAIA
SASKIBALOIA NESKAK	2,4	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
SASKIBALOIA MUTILAK	1,3	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
XAKE	3 / 4 /	16:40/17:40	LIBURUTEGIA
	5	15:00/16:30	
MAHAI TENISA	5	15:00/16:30	GIMNASIOA
BASABIDEA	7		

**LH 6 / EP 6**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
IGERIKETA	1,2	16:40/17:40	IGERILEKUA
PATINAIA	2,4	16:40/17:40	KANPOKO PISTA
AEROBIKA	1,3	16:40/17:40	GIMNASIOA
ESKU PILOTA	1,3	16:40/17:40	IKAST: FRONTOIA
UR ETA LUR JOLASAK	5	15:00/16:30	ARETOA / IGERILEKUA
PILOTA NAHASIAN	5	15:00/16:40	MENDIZORROTZA
ATLETISMOA	2,4	16:40/17:40	FRONTOIA
JUDO	1,3 / 2,4	16:40/17:40	TATAMIA
FUTBOL-7	2,4, 5	16:40/17:40 15:00/16:30	FUTBOL ZELAIA
SASKIBALOIA NESKAK	2,4, 5	16:40/17:40 15:00/16:30	KANPOKO PISTA
SASKIBALOIA MUTILAK	1,3, 5	16:40/17:40 15:00/16:30	KANPOKO PISTA
XAKE	3 / 4 / 5	16:40/17:40 15:00/16:30	LIBURUTEGIA
MAHAI TENISA	5	15:00/16:30	GIMNASIOA
BASABIDEA	7		

**DBH 1 / ESO 1**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
AEROBIKA	2,4	17:30/19:00	GIMNASIOA
ESKU PILOTA	1,3	17:30/19:00	MENDIZORROTZA
PILOTA NAHASIAN	5	15:00/16:40	MENDIZORROTZA
SASKIBALOIA NESKAK	2,4, 5	17:30/19:00 15:00/16:30	FRONTOIA
SASKIBALOIA MUTILAK	1,3, 5	17:30/19:00 15:00/16:30	KIROLDEGIA
FUTBOL 11	1,3, 5	17:30/19:00 16:15/18:00	FUTBOL ZELAIA
FUTBOL 7 NESKAK	2,4	17:30/19:00	FUTBOL ZELAIA
XAKE	2,4	14:30/15:30	LIBURUTEGIA
BASABIDEA	7		
NATUR JARDUERAK	7		

**DBH 2 / ESO 2**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
AEROBIKA	2,4	17:30/19:00	GIMNASIOA
ESKU PILOTA	1,3	17:30/19:00	MENDIZORROTZA
PILOTA NAHASIAN	5	15:00/16:30	MENDIZORROTZA
SASKIBALOIA NESKAK	2,4, 5	17:30/19:00 15:00/16:30	KIROLDEGIA
SASKIBALOIA MUTILAK	2,4, 5	17:30/19:00 15:00/16:30	KIROLDEGIA
FUTBOL 11	2,4, 5	17:30/19:00 16:15/18:00	FUTBOL ZELAIA
FUTBOL 7 NESKAK	2,4	17:30/19:00	FUTBOL ZELAIA
XAKE	2,4	14:30/15:30	LIBURUTEGIA
BASABIDEA	7		
NATUR JARDUERAK	7		

**DBH 3 / ESO 3**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
AEROBIKA	2,4	17:30/19:00	GIMNASIOA
ESKU PILOTA	1,3	17:30/19:00	MENDIZORROTZA
PILOTA NAHASIAN	5	15:00/16:30	MENDIZORROTZA
SASKIBALOIA NESKAK	2,4, 5	17:30/19:00 16:15/18:00	KIROLDEGIA
SASKIBALOIA MUTILAK	1,3, 5	17:30/19:00 16:15/18:00	KIROLDEGIA
FUTBOL 11	1,3, 5	17:30/19:00 17:45/19:30	FUTBOL ZELAIA
FUTBOL 7 NESKAK	2,4	17:30/19:00	FUTBOL ZELAIA
XAKE	2,4	14:30/15:30	LIBURUTEGIA
BASABIDEA	7		
NATUR JARDUERAK	7		

**DBH 4 / ESO 4**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
AEROBIKA	2,4	17:30/19:00	GIMNASIOA
ESKU PILOTA	1,3	17:30/19:00	MENDIZORROTZA
PILOTA NAHASIAN	5	15:00/16:30	MENDIZORROTZA
SASKIBALOIA NESKAK	2,4, 5	17:30/19:00 16:15/18:00	KIROLDEGIA
SASKIBALOIA MUTILAK	1,3, 5	17:30/19:00 16:15/18:00	KIROLDEGIA
FUTBOL 11	1,3, 5,	17:30/19:00 17:45/19:30	FUTBOL ZELAIA
FUTBOL 7 NESKAK	2,4	17:30/19:00	FUTBOL ZELAIA
XAKE	2,4	14:30/15:30	LIBURUTEGIA
BASABIDEA	7		
NATUR JARDUERAK	7		

**BATXI 1 / BACHI 1**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
AEROBIKA	5	16:15/18:00	GIMNASIOA
SASKIBALOIA NESKAK	1,3, 5	18:45/20:45 17:45/19:30	KIROLDEGIA
SASKIBALOIA MUTILAK	1,3, 5	18:45/20:45 17:45/19:30	KIROLDEGIA
FUTBOL 11	1,3, 5	18:45/20:45 17:45/19:30	FUTBOL ZELAIA
FUTBOL 7 NESKAK	2,4	17:30/19:00	FUTBOL ZELAIA
BOLEIBOLA	2,4	18:45/20:45	FRONTOIA
ARETO FUTBOLA	2,4	18:45/20:45	KIROLDEGIA
BASABIDEA	7		

**BATXI 2 / BACHI 2**

<b>KIROLAK</b>	<b>EGUNAK</b>	<b>ORDUTEGIA</b>	<b>LEKUA</b>
AEROBIKA	5	16:15/18:00	GIMNASIOA
SASKIBALOIA NESKAK	1,3, 5	18:45/20:45 17:45/19:30	KIROLDEGIA
SASKIBALOIA MUTILAK	1,3, 5	18:45/20:45 17:45/19:30	KIROLDEGIA
FUTBOL 11	1,3, 5	18:45/20:45 17:45/19:30	FUTBOL ZELAIA
FUTBOL 7 NESKAK	2,4	17:30/19:00	FUTBOL ZELAIA
BOLEIBOLA	2,4	18:45/20:45	FRONTOIA
ARETO FUTBOLA	2,4	18:45/20:45	KIROLDEGIA
BASABIDEA	7		